

## JUSTIZIA ETA ESKUBIDEAK, GAITASUNEN IKUSPEGITIK: MARTHA NUSSBAUM

Antonio Casado da Rocha

Lehenengo lezio honetan "lurra" hartuko dugu, justizia teoria abstraktuetatik haien aplikazio praktikora jaitziz. Gure munduari adi egonez gero, bidegabekeria eta arrakalak edonon ikusten dira, eta horiei itxaropentsu aurre egiteko hainbat baliabide proposatzen dira hemen, Martha Nussbaum filosofo estatubatuarraren eskutik. Berak aipaturiko giza teknologiak dira, besteak beste, OCW honetan deskribatuko ditugun hainbat metodologia, tresna eta komunitate; justizia eta duintasuna zer diren definizio operatibo baten bila, bere ekarpenik garrantzitsuena aurkeztuko da: gaitasunen ikuspegia, alegia. Azkenik, Nussbaumen 10 gaitasun zerrendari beste bat gehituko zaio, gizarte berrikuntza eta eraldaketa fenomenoak ulertze eta suspertze aldera.

### MUNDUARI BEGIRA

Mendeetan zehar, justiziari eta eskubideei buruzko ideiek eragin sakona izan dute mundu osoko gizarte-mugimenduetan: sozialismoan, anarkismoan, feminismoan, esklabutzaren abolizionismoan, ekologismoan, edota eskubide zibilen aldeko militantzia guztietan, besteak beste. Baita gaur egunean ere: Black Lives Matter, Extinction Rebellion...

Baina "justizia sozialaren teoriak abstraktuak izan behar dute", dio Martha Nussbaumek *Frontiers of Justice* bere liburuan: "Orokortasun-maila eta indar teorikoa izan behar dute, beren garaiko gatazka politikoetatik haratago joan ahal izateko, nahiz eta gatazka horiek haren jatorria izan." (2007, 21. or.)

Tentsio bat sortzen da orduan. Alde batetik, justizia teoriak gatazketatik bereizi behar dira, arrazoi instrumentalak edo berekoiak alde batera utzita, iraunkorrek direla eta atxikimendua merezi dutela erakusteko. Bestetik, Nussbaumek aitortzen du justizia sozialaren teoriak ere sentikorrek izan behar dutela: munduari eta bere premiei erantzunez, arazoen konplexutasuna aitortuz, errealitateak kanpoko helbururik inposatu gabe.

Gure inguruan antzeko zerbait azaldu du Daniel Innerarity filosofoak, demokrazia konplexuaren bere teorian:

Gizarteak bizitza zaintzen den bezala gobernatu beharko lirateke: gaituz, ahaldunduz, erraztuz. [...] Kontua ez da errealitateari helburuak ezartzea, baizik eta horiek aurkitzea munduarekiko prozesu, praktika eta komunikazioen bidez; ezen mundua baita guk uste baino adimentsuagoa eta munduak baitu guk uste baino baliabide gehiago. (2020, 107. orr.)

Munduari begira eta adi jarri gaitezen, beraz. Bizirik dago: ez da estatikoa, konplexua baizik. *Gaia* greziar jainkosaren izena du gure planetaren biosferak, sistema bizidun gisa ikusita. Horregatik Jorge Riechmann filosofoak dio gaur egun, 21. mendean, hiru galdera erantzun behar ditugula: “Nor gara gu?”, “Nola lotzen naiz zurekin?”, eta “Nola moldatzen gara Gaian?” (2021, 120. orr.).

Erantzun posibleen artean, hiru haustura edo arrakala-mota daude: gure barneko gatazkak, gizartean daudenak, eta planetarekin (Gaiarekin) dauzkagunak. Hausturak edo arrailak desberdinak dira esparruaren arabera, baina elkarren artean erlazionatuta daude. Otto Scharmerrek<sup>1</sup> dio hiru arrakala horiek fenomeno beraren hiru adierazpen direla. Hiru arrakalek irekitako amildegi pertsonala, soziala eta ekologikoa ekidin al daiteke? Ba al dago itxaropenik gizateriarentzat edo kolapsoaren atarian gaude?

## Itxaropenaren fabrikak

Martha Nussbaumek (2019) azaltzen duen bezala, Kantek gizadiaren kontra adina arrazoi aurkitu zituen alde: elementu berekoi eta altruisten amalgama gara. Baina Kantek uste zuen itxaropenaren besoa luzatu behar dugula ahalegin kontziente baten bidez, irudikatzen ditugun hobekuntzak gerta daitezen. Postulatu praktiko hori gabe ez dago modurik etikan aurrera egiteko, hiru arrailak gainditzeko eta oraindik-ez-dagoenera –utopiara– igarotzeko. Etorkizuneko itxaropenaren besoaren luzapen kontziente hori ez da jarrera onbera edo inozoa. Nussbaumek itxaropena konplexu bat bezala ikusten du, hainbat osagai ezberdin dituen, “sindrome” baten antz handiagoa du sentipen edo emozio soil batena baino: pentsamendua, irudimena, jarrerak bere barne hartzen ditu, baita ekintzak berak ere. (2019, 235. orr.)

Hau da, itxaropena ez da edukitzen edo sentitzen bakarrik, baizik eta eragiten eta praktikatzen den zerbait da, eta hori modu askotara egin daiteke. Itxaropen aktiboa landu daiteke buru-argitasunari uko egin gabe. Itxaropena *fabrikatzen* da. Baina, non eta nola? Nussbaumek sei “leku” edo egoera seinatzen ditu, bere ustez beldurra itxaropen bihurtzen laguntzen digutenak. Itxaropen aktiboan trebatzen garen eta sentikorragoa eta eragingarriagoa egiten dugun eskola edo praktika-komunitateak dira.

Bere ustez, itxaropena mantentzeko edo eraikitzeko lanaren zati handi bat familietan eta lagunartean egiten da, eta mota askotakoak izan daitezke hura elikatzeko moduak. Baina zirkulu horietatik kanpo badira etorkizun txukun baterako itxaropena elikatzen duten jarduerak ere: (1) poesia, musika eta beste arte batzuk; (2) pentsamendu kritikoa –eskoletan, unibertsitateetan eta helduen arteko eztabaida-talde ezberdinetan; (3) erlijio-taldeak, anai-arreben

---

<sup>1</sup> Otto Scharmer eta “U teoria”ri buruz, ikus bedi 3. lezioa.

arteko errespetua eta maitasuna praktikatzan duten heinean; (4) justizia indarkeriarik gabe eta elkarrizketa bidez bilatzen duten elkartasun-taldeak; (5) justizia teorizatzen eta irudikatzen duten egileak. Praktika horietako bakoitzak adibide txarrak eta onak ditu –egon badaude etsipenera garamatzaten filosofia motak, adibidez–, ez dago inolako bermerik bide onera eramango gaituztenik, baina denak batera etorkizunean itxaropen-ahalmen handia dute Nussbaumen arabera.

Lehenengo “fabrika” arteena da; izan ere, zubiak eskaintzen ditu arte orok. Giza aniztasuna zerbait pozgarria, komikoa, tragikoa, xarmagarria eta ez patu beldurgarri gisa ikusarazten digun heinean, beldurra eta susmo txarrak gainditzen laguntzen du arteak. Ikuspegi desberdinen arteko konposizio edo lankidetzaren norabidean aurrera egiteko modua dagoela erakusten digu arteak (2019, 257. orr.). Bigarrenik, elkarrizketa sokratikoa itxaropenaren praktika da Nussbaumentzat, entzumen eta elkarrekiko errespetuaren mundu bat sortzen duelako. Elkarrizketan parte hartzen dutenek helburu bat dute: arrazoibide egokiarekin asmatzea. Nussbaumen arabera, espiritu sokratiar horrek oraindik badirau unibertsitate batzuetan, jarduera filosofikoetan eta espazio publikoko unibertsitate-hedapenean.

Bakardadeak engaiamendua zailtzen du. Horregatik, Nussbaumek hirugarren lekua ematen die talde erlijiosoei, pertsonen itxaropenari eutsiko dieten komunitate bat aurkitzeko bitarteko nagusi eta unibertsala baitira. Gauza bera gertatzen da injustiziaren aurkako mugimendu politikoekin eta protesta-mugimenduekin, eta horretarako beharrezkoak dira justiziari buruzko teoriak sortzen dituzten praktikak ere.

Nussbaumek amaierarako utzi du 6. fabrika, polemikoena: gazteak beren burbuilatik ateratzera eta gertuko gizarte-ingurunetik kanpoko pertsonekin harreman zuzena izatera behartuko dituen zerbitzu zibil nazional baten proposamena. Horrela, Nussbaumen ustez, guztion ongiaren ikuspegi desberdinak nahastu eta kontakizun komun batean zabalduko lirake. Hondamendiek eta gerrek elkartasun eta komunitate sentimendu hori sortzen dute, baina, jakina, alternatiba etiko bat bilatu eta aktibatu beharko genuke, katastrofe bat iritsi arte itxaron gabe. Nussbaumek hiru urteko zaintza-lana proposatzen du, betiere ohiko bizilekutik urrun, bai geografikoki bai ekonomikoki, estatuak ordaindua eta herritar guztientzat nahitaezkoa. Jendeak ez du komunitatearentzako zerbitzuaz hitz egiten, iraganeko zerbait dela suposatzen baita, eta politikoki ezinezkoa. Baina arrakala gero eta handiagoak ikusita, konponbidearen parte izan daiteke. Agian ez dugu utopiaren egingarritasuna ikusten, hain zuzen ere, jendeak ez duelako horretaz hitz egiten. Errazagoa da pentsatzea oraindik existitzen ez den *deus ex machina* batek salbatuko gaituela. Baina ez, Nussbaumek ez du soluzionismo teknologikorik proposatzen, baizik eta sei elementu, dagoeneko gure kulturari

daudenak; izan ere, horiek berreskuratzea gizarte berrikuntza eraldatzailea izan daiteke.

## Praktika komunitateak

Hainbat ikerketek (SDSN, 2020) iradokitzen dute erakunde baten eraldaketaren gakoak dela "tarteko egitura" edo konexio-ehun bat egotea, praktika komunitateak, zeinetan partaideek beren jardueraren zentzua (helburu partekatua) topatzen duten eremu batean trebatzearen bitartez, gaitasun sakonak garatuz eta bakoitzaren indibidualtasuna errespetatuz.

*Nussbaumek aipaturiko eskola edo praktika-komunitate horiek ezin dira izan gizartea eraldatuko duen tarteko konexio-ehun hori?*

Literaturak ere adierazten du komunitate horietan pertsonak elkar lotzen direla praktika komun, errepikari eta denboran egonkor baten bidez, eta, beraz, elkarrekin ikasten dutela praktika horretan (Vasquez, 2011). Praktika-komunitate batek parte-hartzaileei ematen dien ikaskuntza ez da azalekoa edo hutsala; motibazio eta identitate pertsonal eta sozialaren maila sakonekin du zerikusia.

Baina praktika-komunitate bat izateko ez da nahikoa jendea espazio berean jartzea, dela fisikoa dela birtuala. Pertsona horiek asko jakin dezakete, baina botere gutxi eduki. Gauzak elkarrekin egiten ikasi behar dute, eta prozesu horretan beren burua eraldatu. Praktika-komunitate baten hiru ezaugarri definitzaileetatik (enpresa bateratua, elkarrekiko konpromisoa eta erreperitorio partekatua), agian neketsuena azkena izango da, baliabideen biltegi partekatua sortzea. Denbora behar da. Helburu komuna eta konpromisoa izan ditzakegu besteekin lehen egunetik, baina erreperitorioa sortzeko praktikatu, probatu eta huts egin behar da konponbidea aurkitu arte, jakintza eta boterea konektatzeko modu bakarra hori egitea baita.

Trantsiziorako beharrezkoa denak, teknikan bideragarria izanda ere, errotiko aldaketak eskatzen ditu, kulturaren eta politikan. Oso zaila izango da, ezinezkoa ez esatearren, baina ez dago trantsizio iraunkorrik eraldaketa sakonik gabe.

Eta denbora gutxi dago. Baina kondematuta gaudenez itxaropen aktibora, justiziaren eta eskubideen teoria batek geure buruari galdetu behar dio nola hornitu ditzakegun kultura-baliabide horiek, nola landu behar ditugun datorren trantsiziorako behar ditugun gaitasun edo baldintza etiko-politikoak.

## GAITASUNEN IKUSPEGIA

Nola ulertzen ditu Nussbaumek duintasunaren eta justiziaren idealak? Bada, *gaitasun* moduan: justizia da gaitasunak babestea, gaitasunak eta eskubideak elkarri lotuak baitaude. Gaitasunen ikuspuntuak zehaztu eta osatu egiten du giza eskubideen diskurtsoa, zeren eskubideak aldarrikatzea ez baita nahikoa: gaitasunak errespetatu eta sustatu behar dira, baldintza duinetan bizi ahal izateko.

John Rawlsena izan da justiziaren teoriarik garrantzitsuenaren 20. mendean. Baina *Frontiers of Justice* bere liburuan Nussbaumek azaldu duenez, Rawlsek ez zituen ondo konpondu honako hiru arazo hauek: ahalmen urritasun fisiko nahiz mentalak, justizia munduko hiritar guztiengana zabaltzea eta animalien eskubideak aintzat hartzea. Gai horien azterketak Rawlsten teoria berrikustea eskatzen du, eta Nussbaumek proposatzen du gizabanakoaren gaitasunak garatuz soilik lortzen dela egiazko justizia.

Gaitasunak (*capabilities*, ingelesez) dira erabat funtzionatzeko aukerak, eta berezko balioa dute, sor ditzakeen beste ondasunetatik haratago. Hauek dira, Nussbaumen arabera, hamar gaitasun nagusiak:

- 
1. **Bizitza.** Hedadura normaleko giza bizitza azkeneraino bizitzeko gai izatea.
  2. **Osasuna.** Osasun ona izateko gai izatea, ugalketa-osasuna, elikadura ona eta aterpea barne.
  3. **Osotasun fisikoa.** Askatasunez mugitzeko eta sexualitatea derrigortzerik gabe bizitzeko gai izatea.
  4. **Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua.** Ahalmen horiek norberaren bizitzaren zentzua bilatzeko eta adierazteko, prestatzeko eta erabiltzeko gai izatea.
  5. **Emozioak.** Sentimendu atseginak garatzeko lotura esanguratsuak izateko eta beste batzuekin elkartzeko gai izatea.
  6. **Arrazoi praktikoa.** Ondasuna ulertzeko eta norberaren bizitzari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko gai izatea.
  7. **Afiliazioa,** bai beste batzuekin konprometitzeko gai izateko, bai diskriminaziotik eta umiliaziotik babesteko.
-

- 
8. **Naturarekiko eta beste espezie batzuekiko harremana.** Animaliak, landareak eta mundu naturala bizitzeko gai izatea.
  9. **Jolasa.** Barre egiteko, jolasteko eta jolas-jarduerez gozatzeko gai izatea.
  10. **Norberaren ingurunea kontrolatzea, bai politikoki bai materialki,** besteekiko berdintasunean oinarrituta; horren barruan sartzen da politikan parte hartzeko gaitasuna eta ondasuna, lana eta pribatutasuna izatea, ez bakarrik modu formalean, baita benetako aukerei dagokienez ere.
- 

Gutxiengoko programa baten itxura izan dezake –bizitzaren “funtsezko gertakariak”, Thoreauren hitzak erabiltzarren–, baina, izan ere, programa hori munduratzeko ahalegin handia eskatzen du. Ezin dugu hamar gaitasunen artean trukerik edota sakrifiziorik egin: pakete osoa da, gaitasun guztiak gutxieneko maila bateraino bermatu behar dira, gero bakoitzak erabaki dezan zer gaitasun bihurtu funtzionamendu eraginkor. Gizarte bat ezin da gaitasunekin salerosian ibili, batzuk besteen mesedetan sakrifikatuz. Ezin dira pertsona batzuk gaitasunen atalasetik behera utzi edota eraman. Gainera, gaitasunak bereizita dauden arren, elkarri lotuta daude eta elkarri ere laguntzen diote.

## 11. gaitasuna: eraldaketa

Riechmannek (2021, 146. orr.) gaitasunak boterearekin lotzen ditu: sistema edota pertsona batek mugak bere gain hartzeko gaitasun [power] gisa. Izan ere, bere proposamena da botereak hartzen dituen beste formak moderatzea edo gobernatzea giza gaitasunen garapen harmoniko baten bidez, hala nola energiaren [power] eta planeta mailako dominazioaren etengabeko hazkundera.

Horrela ulertuta, garapen harmoniko hori gaitasun eraldatzaile edo autorregulatzailerik bat izango litzateke, Nussbaumek proposatutako hamar gaitasunen gainean gehitu genezakeena, eta Garapen Iraunkorreko hamazazpi Helburuen (GIH) lurzoru etiko gisa ere uler zitekeena. Meta-gaitasun edo “superbotere” hori gabe, ez dago mikrotik makrora igarotzeko modurik, ezta Nussbaumen ikuspegiaren barruan ere. Besteen antzera formulatzen da gure 11. gaitasun hau:

## 11. Eraldaketa. Egungo orainetik ahalik eta etorkizun onenera igarotzeko gai izatea (hamar gaitasun nagusiei dagokienez).

Gaitasun hori bereziki gizatiarra da. Ezin diogu azkonar bati azkonar bat besterik izatea eskatu, baina gizaki batengandik espero daiteke. Eta, gainerakoek bezala, egitura instituzional bat behar da hori posible egiteko.

Gaitasun nagusi asko hezkuntzarekin lotuta daude (4.a, 6.a, 9.a), baina 11.a hezkuntza-gaitasun nagusia da. Heztea ez da prestatzea bakarrik, eraldatzea baizik. Eraldaketa hori ez da indibiduala, ezin da testuinguru kolektibo egoki batetik kanpo gertatu. Pertsona berberak, joko-arau desberdinen pean (erakunde hobeak edo okerragoak), erabaki desberdinak hartzen ditugu; horregatik, beharrezkoa da ikuspegi sistemiko bat lantzea, non adimen kolektiboa, eta ez hondamendi kolektiboa, ko-sorkuntza etiko-politiko baten emaitza izango den.

Zaharrak berri: Platonek eta Aristotelesek ondotxo zekiten ezin dela hiritar zuzenik sortu hiri bidegabe batean. Gaitasun eraldatzailearen garapena, besteak beste, erakunde-sareak 6. gaitasunaren garapenean nola laguntzen duen (arrazoi praktikoa: ondasunaren ikuskera izatea eta norberaren bizitzaren plangintzari buruzko hausnarketa kritiko batean konprometitzea) eta 7. gaitasunaren (afiliazioa: elkartzeko eta taldean jarduteko gaitasuna) araberakoa da. Platonek eta Aristotelesek ikusi ezin zutena da 8. gaitasunak (ekosistemarekiko harremanak, beste espezie batzuk barne) gaur egun duen garrantzia.

10 gaitasun nagusiei dagokienez, egungo orainetik ahalik eta etorkizun hoberenera igarotzeko, hiru arrakala zeharkatu edo gainditu behar dira: banakakoa (pertsonaren barrukoa), soziala (pertsonen artekoa) eta ekologikoa (pertsonaz gaindikoa). Baina nola? Beharrezko eraldaketa ez da forma-aldaketa hutsa, pentsamolde-aldaketa baizik, edo, grekoz esanda, *metanoia*. Konbertsio prozesu bat, ez derrigorrez erlijiosoa, baina ia-ia. Premiazkoa da. Euskal Herriko Unibertsitatea 2030 Agendara egokitu duten lankideek adierazten duten bezala:

Birpentsatu eta berrorientatu egin behar ditugu gizakion harremanak –geure artekoak nahiz naturarekikoak–, gaur egungo gure bizimoduak sortzen duen giza sufrimendu eta sufrimendu ekologiko handia arintze aldera. Egunerokoan bizi ditugun kontraesan larri horiek erantzun sendo behar dute, erantzunkidetasunetik, eta unibertsitateak zuzenean parte hartu behar du haien analisi eta ebazpenean.

Unibertsitatean egunero irakatsi, ikertu, ikasi eta lan egiten duten pertsonak saiatzen dira irtenbideak bilatzen arazo horiei, ikasgeletan, laborategietan, praktiketan eta kudeaketa postuetan. Unibertsitateko kideak ez daude libre kontraesan horietatik. Hala eta guztiz ere, orain badakigu ahalegin partikular horiek beharrezkoak izanagatik ez direla nahikoak. Azken bi hamarkadetan, nazioarteko agendek agerian utzi dute konpromiso bateratu eta adostu baten premia larria, gizadiak egun dituen arazo handiak konpontzeko. 2015ean, Nazio Batuek sortu zuten Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda, 17 GIH barne hartzen dituena: hots, hipotetikoki gizadiaren etorkizuna bermatuko duten gakoak. (UPV/EHU, 2019, 4. orr.)

Eraldaketa horrek ez du esan nahi mikro mailan egiten ditugunak ez ditugula egin behar, baina makro mailan beste modu batera funtzionatzea eskatzen du, banakako keinuak horretan gera ez daitezen, keinu hutsetan. Etika berri bat behar dugu (Riechmannek dioen bezala, etika "gaiatar" bat), nahitaez deserosoa, asaldagarria edo disruptiboa izango zaiguna.

Gizartea eraldatu behar dugu. Baina, egin al dezakegu, unibertsitatea eraldatzea ere lortzen ez badugu? Unibertsitateak gizartearen mikrokosmosa dira, kontraesan guztiekin: potentzial handiko berrikuntza-motorrak, baita inertzia handiak ere. Menpekotasuna zein emantzipazioa transmititzen duten eragileak izan dira eta badira. Mendeetan zehar iraun dute. Badakitelako entzuten, egokitzen eta batzuetan lider izaten ere.

Hamaikagarren gaitasunak zerikusia du sistemaren berrorientazio hori finkatzeko zoru etikoa birdefinitzearekin. Hemen argudiatu dut gaitasun eraldatzaile hori dela unibertsitateek sozializatzeko eta demokratizatzeko ahalegina egin behar dutena, beste hamar gaitasunen funtzionamendua eta babesa gizarte-bizitzako gainerako erakundeen esku utziz: estatua, merkatua eta gizarte zibileko erakundeak, besteak beste.

## BIBLIOGRAFIA

Innerarity, D. (2020). *Una teoría de la democracia compleja*. Barcelona, Galaxia Gutenberg.

Nussbaum, M. (2007). *Las fronteras de la justicia*. Barcelona, Paidós.

Nussbaum, M. (2019). *La monarquía del miedo*. Barcelona, Paidós.

Riechmann, J. (2021). *Informe a la Subcomisión de Cuaternario*. Madrid, Árdora.

SDSN (2020). *Accelerating Education for the SDGs in Universities: A guide for universities, colleges, and tertiary and higher education institutions*. New York: Sustainable Development Solutions Network (SDSN).



UPV/EHU (2019) *EHUagenda 2030. Garapen iraunkorrari ekin*, <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>.

Vásquez Bronfman, S. (2011). Comunidades de Práctica. *Educar* 47 (1), 51-68.